

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKASARITZA SAILA

**421/2020 Foru Agindua, abenduaren 17koa. Arabako Lurralde Historikoko mota guztietako landa lurretan nekazaritza hondakinak erretzeari buruzko eta uztailaren 3ko 274/2018 Foru Aginduaren bidez onetsitako araudia aldatzea, zeina martxoaren 13ko 123/2019 Foru Aginduaren bidez aldatu baitzen**

Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak honako hau dio 3.3 artikuluan: "Mendirako eta gaur egungo edo balizko lurzoru eta landare estaldurak kontserbatzeko balizko arrisku objektiboa den aldetik, mendien arloan eskumena daukan Arabako Foru Aldundiaren Sailari dagokio mota guztietako landa lurretan sua erabiltzeari buruzko kontrola, hori erabiltzeko aurreko administrazio baimena izan beharko dela"

Foru arau hori oinarri, uztailaren 3ko 274/2018 Foru Aginduaren bidez, Arabako Lurralde Historikoko mota guztietako landa lurretan nekazaritza hondakinak erretzeari buruzko araudia onetsi zen, foru agindu horren eranskinaren arabera, eta aurreko araudia baliogabetu zen. Martxoaren 13ko 123/2019 Foru Aginduaren bidez, foru agindu hori aldatu zen.

Araudi horrek modu estentsiboan landutako zereal hondarrak era estentsiboan erretzeko aukera jasotzen du baldin eta arrazoi fitosanitarioak badaude, baina ez dira beste arrazoi mota batzuk baloratzen. Beste arrazoi horietako bat izan daiteke ohiz kanpoko baldintza meteorologikoak egotea, eta, horren ondorioz, ezin izatea landutako zereal hondarrak modu estentsiboan maneiatzeko ohiko lanak egin.

2020ko abenduaren 3an bildu zen Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordeari entzun zaio, aginduzko txostenak aztertuta, horregatik eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea Arabako Lurralde Historikoko mota guztietako landa lurretan nekazaritza hondakinak erretzeari buruzko araudia onesten duen uztailaren 3ko 274/2018 Foru Aginduaren 1. artikulua. Honela geratzen da idatzita:

##### **1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua**

Foru agindu honen xedea da Arabako Lurralde Historikoko mota guztietako landa lurretan nekazaritza hondarrak erretzea arautzea, barne direlarik uzta hondarrak, mahatsondo edo oli-bondoen inausketa hondarrak, lasto fardoak eta nekazaritzako beste landare hondar batzuk. Haren barruan hartzen da modu estentsiboan landutako zerealen hondarrak estentsiboki erretzea, baldin eta arrazoi fitosanitarioengatik eta ohiz kanpoko arrazoi meteorologikoengatik baino ez badira erretzen.

Ez ditu arautzen nekazaritza lurretako gainerako erretze estentsiboak, ez eta baso hondarrak erretzea ere.

Bigarrena. Aldatzea Arabako Lurralde Historikoko mota guztietako landa lurretan nekazaritza hondakinak erretzeari buruzko araudia onesten duen uztailaren 3ko 274/2018 Foru Aginduaren III. kapituluko izena. Honela geratzen da idatzita:

### III. KAPITULUA Modu estentsiboan landutako zerealen hondarrak erretzeko berariazko arauak

Hirugarrena. Aldatzea Arabako Lurralde Historikoko mota guztietako landa lurretan nekazaritza hondakinak erretzeari buruzko araudia onesten duen uztailaren 3ko 274/2018 Foru Aginduaren 8. artikulua, modu estentsiboan landutako zerealen hondarrak erretzeko berariazko arau berezien barruan eskaeraren gai diren eremuen betekizunak arautzen dituen, eta 8.3 puntua eransten zaio. Honela geratzen da idatzita:

8.3. Baldintza horiek ez dira aplikatuko ohiz kanpoko arrazoi meteorologikoek eragindako uztondoak erretzen direnean.

Laugarrena. Aldatzea Arabako Lurralde Historikoko mota guztietako landa lurretan nekazaritza hondakinak erretzeari buruzko araudia onesten duen uztailaren 3ko 274/2018 Foru Aginduaren 9. artikulua. Honela geratzen da idatzita:

#### **9. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea. Betekizunak. Baimena**

9.1. Modu estentsiboan landutako zereal hondarrak modu estentsiboan erretzea baimenduko da, baldin eta arrazoi fitosanitarioak edo ezohiko egoera meteorologikoak direla-eta modu estentsiboan landutako zereal hondarrak maneiatzeko ohiko lanak ezin badira egin.

9.2. Hondarrak erretzeko eskaera egiteko epea:

9.2.1 Modu estentsiboan landutako zerealen hondarrak arrazoi fitosanitarioengatik estentsiboki erretzeko eskaera egiteko epea maiatzaren 1etik 31ra arte izango da. Hala ere, erre ondoren ezarri nahi den laborea ureztatze laborea bada, eskaera egiteko epea irailaren 1ean amaituko da.

Epe horiez kanpo behar bezala justifikatutako kasuak baino ez dira baimenduko.

9.2.2 Modu estentsiboan landutako zerealen hondarrak arrazoi meteorologikoengatik estentsiboki erretzeko eskaera egiteko epea urriaren 1etik abenduaren 31ra arte izango da.

9.3. Modu estentsiboan landutako zerealen hondarrak erretzeko baimen eskaerak, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailari zuzendutako idazki bidez egingo dira, III. eranskinean ageri den eredu normalizatua erabiliz. Arabako Lurralde Historikoko eskualdeko nekazaritza bulegoetako edozeinetan aurkeztu beharko dira, ezertan ere eragotzi gabe Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan xedatutakoa.

9.4. Pertsona edo erakunde eskatzailea berari dagokion nekazaritza ustategien erregistroan erroldatuta egon beharko da.

9.5. Arrazoi fitosanitarioak direla-eta egiten bada erreketeta, eskaerarekin batera, nekazaritza edo baso arloan gaitutako teknikari batek izenpetutako txosten bat aurkeztuko da, arrazoi fitosanitarioengatik erreketeta egin beharra bermatzen duena. Txosten horretan, gainera, esparruan dauden arazo fitosanitarioak eta bertan azken hiru kanpainetan egindako tratamendu fitosanitario guztiak zehaztuko dira, aplikazio data, izen komertziala, materia aktiboak eta produktu bakoitzari aplikatutako dosia adieraziz.

9.6. Egiaztapenak.

9.6.1. Arrazoi fitosanitarioak direla-eta egiten bada erreketeta, Nekazaritza Sailaren Zuzeneko Laguntzen Zerbitzuko zerbitzu teknikoek txosten bat egingo dute, zeinetan egiaztatuko baita ea pertsona edo erakunde eskatzaileak emandako datuak egiazkoak diren eta ea arrazoi fitosanitariorik dagoen gomendatzen duena zereal hondarrak erretzea, haren baldintzak hobetzeko bide gisa.

9.6.2. Arrazoi meteorologikoak direla-eta egiten bada erreketeta, Nekazaritza Saileko zerbitzu teknikoek txosten orokor bat egingo dute, landutako zereal hondarrak modu estentsiboan maneiatzeko ohiko lanak egitea eragozten duten ezohiko baldintza meteorologikoak daudela justifikatzeko.

Bosgarrena. Aldatzea Arabako Lurralde Historikoko mota guztietako landa lurretan nekazaritza hondakinak erretzeari buruzko araudia onesten duen uztailaren 3ko 274/2018 Foru Aginduaren 10. artikulua. Honela geratuko da idatzita:

#### **10. artikulua. Baimenak. Baliozkotasuna**

10.1. Zuzeneko Laguntzen Zerbitzuaren txostenak ezesten baditu eskaerako eremu guztietan uztondoak erretzeko arrazoiak, erretzeko eskaera ezetsita geratuko da, eta horren berri emango zaio eskaera egin duen pertsonari edo erakundeari berari.

10.2. Txosten hori erabat edo partez baiezkoa izatekotan, Foru Aldundi honen Mendi Zerbitzuak baimendu egingo du hura, hala badagokio, eta erreketeta bera egiteko baldintza egokiak jakinaraziko dizkio eskaera egin duen pertsonari edo erakundeari, oro har, 2 hilabeteko epean gehienez, eskaeraren datatik aurrera. Arrazoi meteorologikoak direla-eta, gehienezko epe hori 15 egunekoa izango da.

Eskaera aurkeztu eta epe horiek igarotakoan, eskatutako dokumentazio guztiarekin, baimena emantzat joko da, eta, ondorioz, erretzeari ekin ahalko zaio.

10.3. Hona hemen baimen horien balio epea:

Arrazoi fitosanitarioak direla-eta egiten bada erreketeta: baimena ematen den urteko azaroaren 1era arte.

Arrazoi meteorologikoak direla-eta egiten bada erreketeta: hilabete baimena ematen den datatik.

Seigarrena. Aldatzea Arabako Lurralde Historikoko mota guztietako landa lurretan nekazaritza hondakinak erretzeari buruzko araudia onesten duen uztailaren 3ko 274/2018 Foru Aginduaren III. Eranskina, zeina foru agindu honekin batera dagoen agirian adierazten den bezala geratuko baita.

#### **AZKEN XEDAPEN BAKARRA**

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 17a

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*

**MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**



## ANEXO III

**MODU ESTENTSIBOAN LANDUTAKO ZEREALEN UZTA HONDARRAK ESTENTSIBOZ  
ERRETZEKO ESKAERA  
SOLICITUD DE QUEMA EXTENSIVA DE RESTOS DE COSECHA DE CEREALES CULTIVADOS EN  
RÉGIMEN EXTENSIVO**

Eskatzailearen izen-abizenak / Datos del o de la solicitante

<b>Izen-abizenak edo sozietatearen izena</b> Nombre y apellidos o razón social		<b>Emakumezkoa</b> <input type="checkbox"/> Mujer	
		<b>Gizonezkoa</b> <input type="checkbox"/> Hombre	
<b>Ustiategiaren kodea</b> Código de explotación			
<b>Helbidea</b> Dirección	<b>NAN</b> DNI		
<b>Herria</b> Localidad	<b>P. K.</b> C. P.	<b>Tel.</b>	
<b>Posta elektronikoa</b> Correo electrónico	<b>Faxa</b> Fax		

**Erretzeko baimena eskatzen den SIGPAC eremuen zerrenda:**

Relación de recintos SIGPAC en los que se solicita la quema:

UDALERRIA MUNICIPIO	SIGPAC ERREFERENTZIA REFERENCIA SIGPAC	ORAINGO LABOREA CULTIVO ACTUAL	IAZKO LABOREA CULTIVO AÑO ANTERIOR	DUELA 2 URTEKO LABOREA CULTIVO HACE 2 CAMPANAS	HURRENGO LABOREA CULTIVO SIGUIENTE	ARRAZOIAK MOTIVOS

**Oharra: ezinbestekoa da txosten teknikoa aurkeztea.**  
Razones fitosanitarias (imprescindible acompañar informe técnico).

Razones meteorológicas,  
...../...../.....  
(Tokia eta data / Lugar y fecha)

Eskatzailea / El o la solicitante

*Datuen babesaren alorrean indarrean dagoen araudian ezarritakoa betetzeko, jakinarazten dizugu zure datuak Nekazaritza Sailaren ardurapean dagoen fitategi batean sartuko direla. Fitategi horrek segurtasun neurri guztiak dauzka eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren erregistroan inskribatuta dago. Eskatutako datuak beharrezkoak dira nekazaritzako hondakinak erretzeko baimena izapidetzeko. Nortasuna egiaztatu eta gero, eskuratzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegoetara joanda (Probintziaren plaza, 5, 01001. Gasteiz, Araba)."*

*Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en la normativa vigente en materia de Protección de Datos, le informamos que sus datos van a ser incluidos en un fichero, cuyo responsable es el Departamento de Agricultura y que cuenta con todas las medidas de seguridad y que ha sido inscrito en el Registro de la Agencia Vasca de Protección de Datos. Los datos recabados son necesarios para tramitar la autorización de quema de residuos agrícolas. Vd. podrá ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación oposición dirigiéndose a las oficinas del Registro de la Diputación Foral de Álava (Plaza de la Provincia, 5 CP 01001 Vitoria-Gasteiz (Álava)), previa acreditación de su identidad.*